




E GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



**aurrera bada
aurrera!**



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka
2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka
2 eta 3 ☎ 26 78 97
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

Zazpigarren Araba Adurtza Dantza Taldearen eskutik

6. orrialdea



Aurrera futbol taldea: errespetuaren bila

24. orrialdea



inkestak, kultura, gizartea,
haurrekin solasean,
denborapasak,

...eta askoz gauza
gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Jakintza tradizionaletik edanez



HERRIKO JENDEAREKIN sarri hitz egin, gure ingurumariak etengabe aztertu eta gure ohitura zaharrak xehe-xehe ikertu ondoren, zinez aitortu behar dut herri-inguruetarako halako grina eta mirespena sentitzen dudala.

Nekazarien bizitza gogorra, heredentzian jasotako famili ondarearenganako maitasuna, elkartasun zentzua, egia garrantzitsuekiko fedea, ohitura zaharrekiko fidelotasuna, gizaki libreak izatearen harrotasuna, beren buruaren jabe izateko eta beren lanetik bizi izateko gauza baitira, eta erro sakon-sakonak dituen hizkuntza baten iraupena; horien guztien bidez eskuratu ditu Euskal Herriak egun dituen ezaugarriak nagusienak.

Zoritarrez, gaurko gizartea egunetik egunera aldatzen ari da gure herrien humanismo zaharra azpiratuz. Politikaren eta ekonomiaren mundu errealistazalea, doia eta larriaren eraginez, jakintza tradizionalaren isiltasuna eta apaltasuna desagertzen ari dira.

Maiztergoa eta soroen batasuna, ekonomia tradizionala (landa-kudeaketaren jabe bakarra), auzolana edo auzokideek elkarrekin egindako lana, urrikalmendu-kutxak, erlijiotasun sakona (antzinako erritoez eta mitoez betea), erabilbide eta ohitura onetan oinarritutako foruak, tradizioa alde guztietatik isurtzen duten jaiak, etab. Hori guztia desagertzen ari da. Orain, berriz, honako hauek bultzatzen dira: jabetzaren desagertzea, nekazaritza- eta abeltzaintza-lanen etekinak areagotzea, hiriek ezarritako bizimodu zorabiagarria eta lehiakorra sustatzea, sustrai anglo-saxon-eko denetarikoa moden morroi izatea, interes pertsonalen eta alderdi politikoen alde lan egiten duten ordezkariak osatutako gobernuak agintean ihardutea. "Ni ondo nabilen bitartean, hor konpon bestek"

esaldia nagusitzen ari da egungo gizartean.

Egungo gizakia hirian hazten eta hezten da, baina zenbat eta urrunago egon herri-ingurutik, hainbat eta premia handiagoa du hara itzultzeko. Horrelaxe sortu da ingurugiroa eta haren baliabideak bere egin nahi dituen ekologi pentsamolde bat. Horren arabera, diru kopuru bat jasotzen dute nekazari batzuek nekazal-turismoaren bidez, lurak ematen dienaren osagarri. Era berean, erabilbide berriak sortzen dira, parke naturalak, kasu. Antzinako ezagupen materialak erakutsi ere egiten dira etnografi museoak antolatuz edo kultur ondarea berreskuratuz. Aldi berean, nekazaritza eta abeltzaintzarako hainbat zonalde babesten dira dirulaguntzen bidez, salgai onak eta alternatiboak ekoizteko. Irudi tradizionalak antzeztan dira non argazki-makinak eta bideo-kamarak dituzten ikusleak gehiago baitira "antzezleak" berak baino. Jaiak lekuz aldatzen dituzte eta beren jatorrizko testuingurutik erauzi.

Eta zer esan bada hiriez? Giza baloreak apurka-apurka galtzen hasi ziren, hirien eztanda demografikoa gertatu zenetik. Badirudi hori loturik dagoela hirietako bizimoduarekin.

Gure herrien bizimodu tradizionala desagertzen ari dela ikusita, bizimodu horri diodan mirespena aihen bihurtzen da. Geu gara eraldaketa mingarri baina noraezeko baten lehenengo lerroko lekukoak. Halere, alferrikakoa litzateke ahalegintzea herrietako bizilagunak hirietara bizitzera etor ez daitezen, baldin eta lortzen ez badugu landa-inguruak duina izatea.

Landa-inguruak erabateko garapena izan behar du. Horretarako, ekonomi garapena sustatu behar da ekologi orekari eutsiz, ekonomia familiarra eta auzolanean oinarritutakoa bultzatuz eta landa-inguruaren balore tradizionalak (gizarte-bizitzaren eta kulturakoaren iturri) gizarte berriari egokituz.

Ni oraindik itxaropentsu nago, Euskal Herriak behin baino gehiagotan erakutsi duelako bizimodu eta ekonomia-bide asko zabaltzeko eta indarrean jartzeko gaitasuna duela. Aspalditik nago herrien jakintza tradizionaletik edaten ikasiko dugula, denok duintasun handiagoz bizi gaitzen mundu honetan.

JUANJO GALDOS
ARABAKO ETNOGRAFIA MINTEGIKO
IDAZKARIA

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

Pedro Asua, 2 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

GEU

elkartearen babesarekin
6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Zuzendaria: Iosu Kintas

Erredakzioburua: Iñaxio Lopez de Arana **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea Zurimendi, Miel Anjel Elustondo, Xabier Zabaleta, David Alvez **Hizkuntza arduraduna:** Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Iñigo Sarasola **Marrakizak:** Aitziber Iriondo **Maketazioa:** Alex Badillo, Asier Perez de Karkamo **Publizitatea:** Karlos Fdez. de Betoño **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Asier Perez de Karkamo, Lorea Zurimendi **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, JuanJose Kastresana, Iñaki Gauna, Txabi Arnal Gil, Mikel Garmendia **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati) **GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik**

IZENA: _____

ABIZENAK: _____

KALEA: _____

Kode Postala: _____

HERRIA: _____

Pisua: _____

ZKIA: _____

BESTERIK USTE BADAITEKE ere, mota askotako animaliak aske bizi dira gure hirian. Era berean, gizakiokin bizi denik ere bada: katuak, txakurrak, arrainak, txoriak... Halere, ez da batere erraza norbere pisuan animaliak izatea, auzokideen kexuak direla, lorategietako eta kaleetako gorotzak direla, zaratak direla... beti iskanbila lagun. Bi ikuspegi izan ohi dira auzi horren inguruan: animalien jabeena eta gainerakoena.

Kalea mintzo hiriko animaliez



1. Ondo iruditzen al zaizu hirietan animaliak izatea?

2. Zein iritzi duzu animalien jabeaz?

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu



ESTIBALIZ DIAZ
sikologoa

1. Laguntzeko edo badira ondo iruditzen zait. Horrela ez bada, hiriko pisu bat ez da, nire ustez, lekurik egokiena animaliak izateko.

2. Besteen aurrean harro-harro agertzeko besterik ez dituzte erabiltzen batzuek animaliak.

Beste batzuek, ordea, benetan maite dituzte

BERTSOAK

BERTSOLARIA:

Josetxu Larreina

DOINUA:

Ari naizela ari naizela

GAIA:

Oporretatik itzulian



Lehen aldizkaria hilero
iristen bazen zure
etxera baina azken
bolada honetan
jasotzen ez baduzu,
deitu 222153
telefonora, kontu hori
lehen bait lehen
konpontzeko

I
Gehien gehienek hortikan zehar gozatzen ibili dira kanping, hondartza, ibar danetan hamaika jira eta bira mendia maite dutenak ere sarri askotan mendira ikaslea iraila hasita zeharo kexkatzen hasi da

II
Baina badira danetarikan batzu oporrikan gabe bero azpian izerditan blai egiteko jorlan gabe agian Azaroalden egin beharko Gasteiz honetikan alde merkeagoak hotelak eta askotan erdi debalde

III
Badira ere gazte askotxo nahiz eta soberan indarra lanikan gabe urte osoan hori egoera baldarra gertu-gertutik ikusirikan 'marginazioa' ren marra 'putada' itzela urte osoan oporran egon beharra

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



EMILIO MELGUIZO
funtzionaria



PEDRO BELTRAN
langabetua



AMPARO GANUZA
etxeoandrea



EDURNE IGLESIAS
langabetua



JORGE CARRERE
kazetaria

1. Printzipioz, animalientzat ez da batere ona, haien ohizko bizi-inguruan ez daudelako.

2. Jendeak nahi duena egin dezake baina nik neuk ez nuke animaliarik izango etxean.

1. Ezta pentsatu ere, gaizki iruditzen zait, batetik, denbora piloa behar duzulako animaliekin egoteko eta bestetik, osasun-aldetik ere, ez delako komenigarria.

2. Gehienek ez dute gizabiderik, adibidez, animaliek kaka egiten dutenean, jabeei berdin zaie non,nola eta zer egin duten.

1. Txikia bada, ondo iruditzen zait, bestela lan gehiegi ematen dute.

2. Animalia eduki nahi bazu, lehenbizi jakin behar duzu zertan ari zaren. Bestela, kaltegarria da bai animalientzat bai jabeentzat.

1. Ez zait gaizki iruditzen animaliak gogoko badituzu. Baina kontuan hartu behar da nolakoa den pisua ere.

2. Gehienek ez dute ondo jokutzen. Etxean animaliak dituztenek prestatuta egon behar dute horretarako; gehienek, ordea, ez dakite hori zer den.

1. Horretarako etxeak berezia izan behar du, animalien beharrak asetzeko modukoa.

2. Inori ez zaio gustatzen espaloian gorotzak ikustea, baina hiriak ez daude prestatuta arazo hori konpontzeko.



1. Musikagile bat Errioxa kalean jaio zen 1894an. Nola zuen izena? **ALFERDO DONNAY**

2. Arabako zein taldek ditu bere armarran bi basurde eta sei gaztelu? **MAEZTUKOAK**

3. Zein ibai igarotzen da Lukianotik? Bayas

4. Pedro de Asuak bi lanbide izan zituen: apaiza eta... **ARKITEKTOA**

5. Zenbat aldiz izan zen Zeledon Juan Luis de Isasi? **22**

6. Fontetxan jaio zen eta bere garaiko abeslaririk handienetako bat izan zen. Nor da? **JOSE MARDONES**

7. Zein udalerritan dago Azebedo herria? **GAUBEAN**

8. Zein urtetan toreatu zuen lehen aldiz Manolete-k Gasteizko jaietan? **1947AN**

9. Zein da Arabako kobazulorik handiena? **MAIRULEGORRETA**

10. Zein udalerritan dago Gebara herria? **BARRUNDIAN**

Araba gure lurra

Gasteizko jaietako atsedena hartu ostean, hona hemen uztaileko alean agertutako galderei eman behar zenituzten erantzunak, eta beste hamar galdera berri:

11. ZEIN URTETAN IRITSI ZEN FRANTZIAKO TOUR-A GASTEIZA?

12. NOLA DU IZENA EGILAZKO TRIKUARRIAK?

13. ZEIN JAUREGITA BIZI DA EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARIA?

14. NOLA ESATEN DA LAGUARDIA EUSKARAZ?

15. ZEIN DA SAN PRUDENTZIOREN ZORTZIKOAREN EGILEA?

16. GASTEIZKO ZEIN AUZOTAN DAGO BATZAR NAGUSIAK IZENEN KALEA?

17. ZEINTZUK DIRA ARABAKO ZAZPI TALDEEN HARMARRIETAN DAUDEN ANIMALIAK?

18. ZEIN MENDIZERRATAN DAGO SAN TIRSO MENDIA?


19. ZEIN HERRITAN DAGO LAZARRAGA JAUREGIA?

20. ZEIN DA KANPEZUTIK HURBIL DAGOEN MENDIRIK ALTUENA?

Zazpigarren Araba

Adurtzako Dantza Taldearen eskutik

a **ADURTZAKO DANTZA TALDEAK** 21 urte bete ditu aurten. Ospatzeko edo, uztailaren 24rako "Zazpigarren Araba" izeneko ikuskizuna prestatu zuten. Ikuskari hori esperientzia berria eta garrantzitsua da berentzat. Gai horretan gehiago sakontzeko, Adurtzara jo dugu, Maribi, Ade eta Txusmarekin hitzegiteko. Adurtzako dantza taldearentzat oso erronka handia izan da ikuskizun berri honek ekarri duen lan guztiari aurre egitea. Oztopoak oztopo eta ahaleginak ahalegin, pena merezi izan duela uste dute.



ADURTZAKO DANTZA taldea 1974an sortu zen. Orduan txistulariak eta hamar bat dantzari baino ez ziren; gaur egun, ordea, taldea askoz haundiagoa da: guztira, 90 partaide ditu, 6 urtetik 35 urtera bitartekoak, lau taldetan banaturik. Astero izaten dute entsaioa Adurtzako gizarte etxean.

Gaur egun, Araba Dantza Taldea, Adurtzako eta Indarra baino ez dira geratzen Gasteizen. Adek esan digunez, "oso gogorra da dantza talde bat aurrera

ateratzea, gogo haundia izan behar da eta". Orain dela hamabost urte hamabi bat talde ziren Gasteizen, baina pixkanaka-pixkanaka desagertzen joan dira.

Dena dela, Txusmaren ustez, zale-tasunak lehengoan dirau. "Lehen jendea elkartuago zegoen politika gaietan, baina demokrazia deitzen duten hori abian jartzearekin batera, taldeak banatzen joan ziren. Horrela, kulturaren alde zerbait egin nahi genuen taldeak geratu ginen, baina, nire ustez, dantzarekiko zaletasuna gero

eta haundiagoa da".

Kobratzeari ez diote garrantzi handirik ematen adurtzatarrek. Adibide modura, "batzutan herrietara dantza egitera joaten garenean, autobusa ordaintzea baino ez dugu eskatzen".

**“Lana gogotik
egin eta gero
ikuskizuna ondo
geratu dela
uste dugu”**

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

**SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK**

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

Dirulaguntza gutxi

Normalean ez dute diru laguntzarik jasotzen; batzutan Foru Aldundiak aktuzio batzuk ematen dizkie, eta behin edo behin Udalak ere bai. Baina aurten proiektu bat aurkeztu dute, "Zazpigarren Araba" izeneko muntaia, hain zuzen. Horretarako, 750.000 pezeta jaso dituzte Udaletik. "Badirudi diru asko dela, baina dagoneko milioi erdia gastatu dugu jantzi berezi bat erosten eta beste batzuek konpontzen".

Nazioarteko Folklore Astearen barruan dantzatu zuten Adurtzakoek, Euskal Herriaren ordezkari gisa dantzatu ere. Ikuskizuna uztailaren 24an eman zuten jendaurrean. Horretara iritsi aurretik, ordea, inoiz baino lanpetuago ibili dira urte osoan. Baina, abuztua iritsita, oporrak hartu dituzte, irailean gogotsuago ekiteko lanari.

Zazpigarren Araba

"Zazpigarren Araba" izeneko muntaia prestatzeko ehun bat pertsona ibili dira lanean. Ezberdinak txarangaren eta talde eskenografiko baten laguntza izan du Adurtzako dantza taldeak. Talde eske-



Gogo handia behar da dantza talde bat aurrera ateratzeko

nografiko hori alderdi teknikoaz arduratu da, argiak, kolorezko itzalak... prestatu dituzte.

"Zazpigarren Araba" ikuskizunak Arabako dantzez dihardu. Estraineko aldiz

aurkezten dute adurtzatarrek horrelako ikuskari bat. Hori dela eta, ahitzerrainoko lana eta urduritasuna nagusi izan ziren uztailaren 24a baino lehenagoko egunetan. Ia egunero ensaiatzen zuten. Txusmak esan digunez, "oso lan gogorra izan da, baina nik uste dut pena merezi izan duela, ondo geratu da eta".

Oso pauso inportantea izan da Adurtzako dantza taldearentzat ikuskizun hau plazaratzea, erronka handi bat. Ikuskaria egiteko ideia sortu zenetik urtebete eta erdi igaro eta gero, beren asmo-ametsa burutzea lortu dute adurtzatarrek denon gozamenerako. Zorionak!

Susana & Itziar



MIKO
izozkiak

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu**

INPRIMATEGIA

Nerbioiko ur jauzia

GURE
MENDIAK



a

RABAN

leku bitxi eta ezezagun asko ditugu, edozein mendigoizalek eta ibiltarik bisitatzeko modukoak. Sarritan horrelako ingurune batera hurbiltzeko, ohizko bideetatik dexente aldentzen gara, horretarako zibilizaziotik urrun ibili beharrik izan gabe. Horrelakoxea dugu segidan aurkeztuko dizuegun txangoaldia, erraza, malkartsua eta hurbila.

Santiagoko iturritik bi bide ateratzen dira. Eskubikoa hartuta, otsotegi (lobera) zaharrera iritsiko gara 1.400 metro egin eta gero. Beheko Paleolitikotik erabiltzen da leku itxi hori animalia handiak eta arriskugarriak ehizatzeo; zenbait gizon taldek animaliak oihu eginez izutzen

SANTIAGO MENDIAN natura bizibizirik eta eder-ederra dago. Inguru horretan, Gillarteko mendizerran, Nerbioi ibaia jaiotzen da, Urduñaren goialdean 850 metroko alturan, eta Kantauri itsasora irteten da Bilbo igaro eta zenbait kilometrotara. Baso itxiak eta gizakiaren aintzina azterna antzeman daitezke nonahi. Lur-zati hau Urduñako lautadaren gainean kokatzen da. Busgos du hurbil-hurbileko lagun; behean, berriz, Araba eta Urduña, Bizkaiko uhartetxoa. Mendatea igo bezain laster, Berberanarako errepidea hartu behar da. Kilometro bat aurrerago, ezkerretara, bihurtune bat dago (Txarlarazora doanaren ondoan) Nerbioiko kanoian sartzeko. Une batez Gaztela eta Leongo lurretan sartuko gara.

Pagadiak, kobazuloak eta beste

Santiago mendiaren sarbidea 890 metrotara dago itsasoaren gainean.

Animaliak biltzeko hesi batzuk igarota, errepide zabal eta malkar bat hasten da. Hiru kilometro egin behar dira pagadian zehar. Hantxe duela 15 urte aterpe bat eratu zen. Horrekin batera, aisialdirako esparru bat, erretegiak, mahaiak eta jarlekuak ere egokitu ziren bertan.

Gaur egun, aterpea oso egoera penagarrian dago: behien bizileku bihurtu da azken urteotan. Hara biltzen dira jaiegunetan naturaren gozoak berenganatu nahi dituzten gurasoak eta haien seme-alabak. Harizko eskailera batetik jaitsita, kobazulo batetik datorren iturri batera iritsiko gara. Kobazulo horretan zenbait zulo eta hutsune ikusten dira: Santiago apustuluaren zaldiak utzitako aztarnak dira, hango artzainen arabera. Aintzina komentu bat zegoen han. Basoaren bihotzean gaude, itzelezko pagadi batean; pagoak nagusi izan arren, haritzak, azkarak, lizarak eta arantzeak ere ikus daitezke han-hemenka.



zituzten harrizko ormak zituzten bideetatik eramateko. Horrela, itsu-itsuan iristen ziren animaliak otsotegi (lobera) izeneko itxigune hartara eta han adarrez estalirik zegoen zulo sakon batera erortzen. Haraino heltzen ziren animaliek ez zuten ihesbiderik; orduko gizakien sabela zuten hurrengo geltoki. Gaur egun, zuhaitz bat dago itxigune horretako zuloan.

Behatoki bat amildegiaren ertzean

Errepide beretik jarraituta, Santiagoko iturritik bi bat kilometrotara, beheruntz egiten duen anfiteatro moduko bat sortzen du mendiak. Hor behatoki bat dago amildegi izugarri baten ertzean. Eskubitara Nerbioiak aitzetan sortu duen arroa dago, hutsik. Nerbioi ibaiaren ibilgu lehorrean kobazulo bat dago, Uretakoa; diotenez, hor jaiotzen da ibaia. Behatokiaren azpian, euria egiten duenean, 500 bat metroko urjausi ikusgarri bat sortzen da aitzetik.

Santiago menditik Berberana aldera joz gero, ingurune bakarti eta malkartsuak zeharkatuko ditugu. Hona hemen beste aukera bat: eskubitara jo, Aitzeko Ama Birjinaren (Virgen de la Peña-ren) ermitaruntz, Txarrazoko ibilbidean zehar, Salvada mendizerraren ikuspegi txundigarriez gozatzeko. Hara biltzen dira lagun asko "ala delta"-ri lotzeko mendiaren ertz zorrozetatik beren burua botaz.

Lanera !

Abel
Enbeita



OPORRAK...

Abuztua... Beroa...
Hondartzak...
"Banaioak
oporretara" - esan
nien nire lankideei.
Atzo? Gaur goizean?
Ez dakit. Zirelakoan
joan direla dakit soil-
soilik.

Eta iraila! "Zer
moduz oporrak?" -
galdetu didate.

Oheak ere atsedenaldi goizti-
arragoa hartzen du egunero.

Bulego zahar hau lehen be-
zala eta utzi nuen toki berbe-
rean aurkitu dut. Ez da pape-
rik ere mugitu. Ez dakit non-
dik hasi, zeri heldu. Arraro

sentitzen naiz. Nagi alper batzuk
astindu eta lankideak agurtzea erabaki
dut. Horiek ere antzera aurkitu ditut. Ez
naiz ez bakararra. Batzuk hondartzetara
joan omen dira, bistan dute Eguzkiaren
kolpearen seinalea. Besteak mendira.
Horiek Mediterraneo aldera eta haiek
Euskadin gelditu... Denetarik.

"Irriz eta malkoz" Lazkao-Txikiren
liburu hunkigarria daukat aurrez aurre
eta "Hostoak erortzen" bertso sortako
azken bat datorkit gogora:

*"Hosto maitea, orain bitarte
hor goiean egon zera
bainan azkena iritxi zaizu
eta bazatoz lurrera".*

Guri ere antzerako zerbaite pasatu
zaigu: Oporraldia bukatu da ta bagatoz
berriz lanera. Amen.

OPORRAK?

Izan al
ditut bada...? Andre Mari Zuriaren ja-
ietan erdi mozkortu nintzala... Mendira
joan-etorri batzuk egin ditudala... Bai,
gogoratzen naiz holako zerbaiteaz,
asteburu arruntetan egiten ditudan
horietaz gogoratzen naiz. Eta berriro
hemen, berriro iraila. Izen madari-
katua! Urteroko ibilbide berbera.
Zuhaitzak biluztera, hostoz hustutera;
lantegiak eta ikastetxeak, ordea, lan-
gilez, irakaslez eta ikaslez asetzen,
janzten. Agur uda! Ongi etorri udaz-
kena.

Tximista bezain azkar joan zaigu,
begiratzeko astirik eman gabe, abuztu
"santua". Zeledon jauna aspaldi izku-
tatu zitzaigun San Migel elizako dorre
altuan. Armairutik jertseiak ateratzen
hasi gara, astelehenean hasi eta aste-
buruari begira jarri. Udan pilatu dugun
kolore beltzarana murrizten dihoakigu.



Vital Kutxa udalagun

Kirol-abentura

Irailan eta urrian ere zure aisialdiari berebiziko bizitasuna emateko aukera izango duzu, horretarako Vital Kutxak erraztasun guztiak zure esku jarriko ditu eta. Oraingo honetan, abentura kutsuko ekintzak eskeintzen dizkizu, zein baino zein erakargarriagoa eta gozagarriagoa. Erne, bada, segidako datuei eta etorri lehen bait lehen Vital Kutxara izena ematera ekintza edota ikastaro mordo batean.

KIROL-ABENTURA (*)

Espeleologia	irailaren 24an	3.500 pta
Hipika	irailaren 17an	5.000 pta
Rafting-a	irailaren 23tik 24ra (asteburua) eta urriaren 22an (egun bakarra)	4.500 pta (egun bakarra) eta 9.000 pta (asteburua)
Haitzarteen jaitsiera	irailaren 30ean eta urriaren 1ean	3.500 pta
Puenting-a	irailaren 10an eta urriaren 28an	3.000 pta
Urlasterretako piraguismoa	irailaren 16tik 17ra (asteburua) eta urriaren 8an (egun bakarra)	9.000 pta
Rafting-a eta eskalada	urriaren 14tik 15era (asteburua)	9.000 pta

(*)

PARTE HARTZAILEAK: 15 urtetik 45 urtera bitartekoak. 15 urtetik beherakoek gurasoen baimena beharko dute.

IZENA EMAN: ekintzak asteburuetan egingo direla kontutan izanda, aurretiaz eman behar da izena, aurreko astelehenetik aurrera, hain zuzen

Caja Vital Kutxaren Telecaja Joven txartelaren jabeek %15eko deskontua izango dute izena emateko orduan. Bestalde, izena emateko eta ekintzei edo ikastaroei buruzko argibide gehiago jasotzeko, Postas Pasabidea-General Alava kaleko Caja Vital Kutxako bulegora jo behar da goizeko 9etatik arratseko 8etara.



IKASTAROAK

2, 3 eta 5 ordu

Urrats guztiak

EGA, mintza eta sakontze taldeak

Benetan (IKAS-TXIP)
Euskara ordenagailuz

MATRIKULA EPEA

Irailak 4-22

INFORMAZIOA

Errege Katolikoak 15-C

Pintoreria 74

Zaldiaran enparantza 16

288922 tnoa.

289780 tnoa.

244905 tnoa.

* HABEren dirulaguntzaz antolatutak




**Patxi
Zubizarretaren
ipuin bat**

Etixerik gabeko bikote baten egunkaria

Aurten ere, ia
bezala, oparitxo
bat esin nahi
izan diezugu.

Ondotxo dakigu ez
dela batere
xamurra izaten
oponretatik
buelatu beharra.
Horrexegatik, ahoa
goxatu nahian,
hona hemen Patxi
Zubizarretaren
ipuin hau.
On esin!



Etixerik gabeko bikote baten egunkaria

1.

Gaur nazka-nazka eginda amaitu dugu. Ezin dugu honela jarraitu. Larunbatero bezala, lagunekin zuritoak hartzen ibili gara, eta horren ostean, ordu ttikitan, autoa hartu eta, Berrostegietatik gora abiatu gara, izkinatxo baten bila. Eta ez dakit bada, txispatu samar nengoelako edo lainoa sartuta zegoelako, kontua da autoa baztertu eta Mirenek, kanpora irtetean, berealdiko oihua egin duela. Jesus, Maria eta Koxme, ni ere kanpora irten eta berehala konturatu naiz gehiegi baztertu naizela eta Mirenek ez duela lurrik izan oina jartzeko, eta, zera, bilin-boloka aldapan behera jausi dela. Mireni lasaitzeko esan arren, aieneka jarraitu du puska batean, harik eta eskuargiarekin laguntzera jaitsi natzaion arte. Gero autoraino igo eta atzeraka botatako eserlekuan etzaten lagundu diot; orduan berogailua eta Leonard Cohenen musika ezitia jarri, eta, barkamena samur eskatu ostean, musuka hasi gara, gozo, aste osoan zehar irrikatu bezala.

2.

Baina larunbatero bezalatsu hasi berriak ginela, halako batean hara non gelditzen zaigun auto bat, goi partean bi argi urdinxka dituen horietarikoa; eta gu, paradisuko aldaba jotzeko zorian geundela, ez zerurako ez lurrerako gelditu gara, zeren berehala txapelgorri bat hurbildu baitzaigu, begiak lausotzen zizkigun argitzar bat dakarrela, eta gu puska batean enfokatu ostean (apenas izan dugun jatzeko astirik), gure autoa kanpotik aztertu, atzera beraienean sartu eta, ez agurrik ez diosalik, ospa egin dute.

3.

Gaur nazka-nazka eginda amaitu dugu. Etxera eraman dut Miren, baina ertzainarenaz geroztik, ez dit hitz erditxorik ere esan, eta nik, orain, nire onera etorri ezinik nagoela, luma hartu eta barrena askatzeari ekin diot. (Gasteizen, 92-X-4)

4.

«El casado casa quiere», dio erdal esaera zahar batek, eta guk diogu ezkongabeok ere etxebizitza txukun bat nahi dugula, bertan elkarbizitza aurrera eramateko eta, behingoz (gure 31 eta 33 urterekin dagoeneko ez baikara umemokoak), gurasoekin lotzen gaituen zillbor hestea eteteko.

5.

Gaur, batez ere barteko gertaerek eta gorabeherak eraginda, etxebizitza egoki baten bila hastea erabaki dugu, eta Mirenek atzoko eroriarengatik begi bat zanbatuta eta ubel izan arren, irribarre musudun bat eskaini dit. Gaitzerdi. (Gasteizen, 92-X-5)



GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73


FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

6. Gaur sei urte, elkarrekin ibiltzen hasi ginen eta pozez gainezka egon beharko genuke, baina gaur sei egun dira pisu bila hasi ginela, eta zeharo lur jota gaude. Inmobiliarietako dendaurreak zero eskuragaitzez josita daude (17. 000. 000; 20. 000. 000 eta hortik gora); egunkarietako iragarkiak ere amets gauzaezinez beterik ikusten ditugu. Ez da giro.

7. Gaur, gure urteurrena ospatzeko egin dugun afarian, kontuak atera eta, matematiketan oso iaioak izan gabe ere, ondorio argi bat atera dugu: oso zero gutxi daukagu... Bai afari triste (eta garestia) gaurkoa. (Gasteizen, 92-X-11)

8. Txukun eta apain, gaur aurrezki kutxa batera joan gara. Kanpoaldeko iragarki batean, etxe bateko balkoia ageri zen, lorez betea, eta bertan, besotik helduta, bikote irribarretsu bat; balkoipeko esaldi batek laburbiltzen zuen argazkiaren mezua: «Zure ametsak gauzatzeko prest gaituzu.»

9. Kutxa barrenera sartu eta gizon mustaxdun hortzuri batek hartu gaitu, irribarretsu hau ere. Bere jakinmina gure lan egoerara mugatu da; ez digu galdegin gure ikasketez edo elkar asko maite ote dugun. Mirenek Kimika ikasketak burutu eta urtebeterako laborategi batean ari dela esan dio; nik Historia ikasi arren, propaganda banatzen nabilenez, publizitatean lan egiten dudala esan diot, badaezpada ere, baina hori bai, ez dudala kontratu finkorik. Gizonak irribarrea itzali, mustatxa igurtzi eta apur batean pentsatzen egon ostean, zero asko



eskaini dizkigu, eta ordaintzeko beldurrik ez izateko aholkatu; zero asko-asko-asko itzuliko dizkiogun arren, oso epe luzean, oso-oso-oso epe luze eta erosoan izango dela esan digu. Azkenik aipatu digu gure gurasoen abala beharko dugula, eta hau dela edo bestea dela kreditua ordaintzerik izango ez bagenu, haiek beren gain hartu beharko luketela guk utzitako zorra.

10. Aurrezki kutxatik irtetean, aspaldiko partez guri ere irribarrea piztu zaigu, eta ilusio berria ospatzearren, kafetegi batera jo dugu: bi kafesne, bi kruasan. Eta bien bitartean, paperezko serbileta batean kontuak ateratzen ihardun dugu, eta ai ene, ai Jesus, Maria eta Koxme! Oso-oso-oso zero gutxi daukagula ohartu gara, gutxiegi etxe txukun baterako. Kruasanak kontrako eztatritik joan zaizkigu eta tarte luze batean eztulka aritu gara. Behingoz eztula baretu zaigunean, leluka-leluka, fi-fi eta fu-fu, ordaindu gabe irten gara. A zer erremedio! Kreditu bat eskatuz gero, etxean



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest

• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ



etengabe maizter bat izango genukeela pentsatu dugu: aurrezki kutxaren mamu irribarretsua... Eskatu ezean, oster, ez etxerik, ez mamurik. (Gasteizen, 93-II-5)

11. Egunkari guztiek ekarri dute: pezetak behera egin du; kredituak gora. Aurrezki kutxako gizon mustaxdun korbatadunak, dirua ateratzera sartu garenean, bere ohiko irribarre zuria eskaini digu. Eskuarekin O.K. keinua eginez, beste O bat marraztu digu eta gu K.O. geratu gara., boxeolarien gisa. Bestalde, gure kontu korrontearen zeroak, astea joan astea etorri, berdin antzera daudenez, neurri zorrotzak hartu beharko ditugu.

12. Miren eta biok klase partikularrak ematen hastea bururatu zaigu, eta agian nik, propaganda banatu ez eta papera kiloka saltzea egin dezaket. Azkenik, nahiz eta

autoa Mirenen gurasoena izan, hemendik aurrera ez hartzea erabaki dugu, gasolina garesti ateratzen baita. Udaberria laster etorriko da eta larunbatetan Gasteizko ingurumarietara joan gaitezke, edo, azken kasuan nire etxeko ganbarara (zorroak, munduko airbagik ttikienak, IHESaren aurkako ekitaldietan eskura ditzakegu). (Gasteizen, 93-III-16)

13. Gure etxean aita eta biok baino ez gara bizi, eta bera jubilatuen elkartera joaten denean, nik, erdi txantxetan, honela esaten diot: «Ea bakarrik bizi den alargunen bat liluratu eta harekin bizitzera joaten zaren.» Berak barre egiten dit, baina baleki, zer nolako mesedea egingo ligukeen... (Gasteizen, 93-IV-17)



14. Kalea aldizkariaren iragarkietan, partikularren atalean, honako eskaintza hau irakurri dugu: «Etxebizitza bat saltzen da: bi gela, egongela eta komuna. Oso argia eta lasaia. Bikote gazteentzat ezin egokiagoa.» Miren eta biok pozak zoritzen jarri gara. Aspaldiko partez, elkar xaramelatzen ibili gara: «Ai, ene lili eztia, ene azukre koxkorra» edota «Ene panpoxa, ene mimosa, ene arrosa», eta hori dena musu eta laztan artean.

15. Eta geratu gara pisua ikusteko, eta joan gara, joan gara eta joan gara (zeren benetan urrun baitzegoen), eta ia Lizarrarako bidegurutzean, zabortege batera ematen duen etxe zaharkitu eta



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



bakarti bat topatu dugu. Puska batean aurrera egin ez egin egon gara, baina azkenean txirrina jo eta aitona horzgabatu bat atera zaigu.

16. Atea zabaldu ordukoxe erre kiratsa usaindu dugu, hats higuin garria... «Azken maizterrari koltxoia erre eta azkenean etxeak su hartu zuen. Baina zuek gazteak zarete eta, di-da, etxeari garbitu bat eman, pintatu eta primeran utziko duzue. Bai horixe, primeran!» Eta guk esan bai, baietz, eta baietz, pensatuko dugula; baina baita zera ere, hor ez gaitu harrapatuko ezta... Eta ai ene, ai Jesus, Maria eta Koxmel (Gasteizen, 93-VI-17)

17. Zenbat eta etxe gehiago ikusi, hainbat garbiago ohartzen naiz etorkizun gorria daukagula eta ez dagoela giro. Bestalde, azken aldian asko hausnartzen ari naiz burutapen xeble bat, ia amesgaiztoak egiteraino, eta ez dut beste irtenbiderik ikusten. Mireni nire burutapena azaldu diodanean, ez lurrerako ez zerurako geratu da, harri eta zur alegia. «Ez da posible, ezin liteke», esan dit, baina dena astiro-astiro argitu diodanean, ulertu egin duela esango nuke... (Gasteizen, 93-XI-17)

18. Etxebizitzak direla eta ez direla, beste giro bat bultzatu behar omen da gazteen artean. Jabetzaren sentipena alde batera utzi eta, European bezala, alokairu politika berria bultzatu behar omen da. Hori esan du gaur, telebistako mahainguru batean, sailburu ezagun baten semeak. Eta nik zera diot, ezagutzen dudala sailburu ezagun horren semeak egin berri duen txaletzarra, eta gainera, han debekatu egiten didate propaganda botatzera sartzea.

Azal gogorragorik! Doala zakurraren salara!

19. Baina gaur horrek ez dit amorraziorik handiena ematen; ez, gaur, santo Tomas egunez, ez dugu txistor mutur bakar bat ere jan, eta horrek kirio guztiak airean jartzen dizkit. Hau mozdadea; ez da bada asko eskatzea... Baina Mirenek dioenez, «Aurreztu beharra dago, bestela jai daukagu...» (Gasteizen, 93-XII-21)

20. Ez loteriarik, ez Olentzerorik, ez Erregerik... K.O. Zakurraren putza! (Gasteizen, 94-I-7)

21. Betiko leloa: pezeta behera, kredituak gora. Baina leloak, benetako leloak hemen gu gara. Hori sentitzen dut, behinik behin, aurrezki kutxan sartu eta nazkante atorrante horren irribarre zuria ikusten dudak bakoitzen. Ez dago, ez, girorik! Errediola! Eguzkiak ez ditu denak berdin berotzen.

22. Miren eta biok haserre eta muturtuta: ez etxebizitzarik, ez elkarbizitzarik... Aita ere triste jartzen da gu horrela ikusten gaituenean, eta orduan nik pentsatzen dut hura poztu egingo litzatekeela nire burutapenaren berri balu; dena dela, hobeki pentsaturik... Ez dakit bada. (Gasteizen, 94-I-14)

23. Ospatu ez dugun arren («Aurreztu beharra dago»), gaur beste urtebeterako luzatu diote Mireni kontratua. Huskeria bat ordaintzen dioten arren, laborategian jarraitzen du eta horrek

 **Ardatz** itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

 **Ederki**

argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industriala
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

burutapena aurrera eramateko aukera eskaintzen digu. Ez, nik gaur egun ez dut beste aukerarik ikusten. (Gasteizen, 94-II-3)

24. Gure asmoa hori ez bada ere, gaur ondoko herrietako etxebizitzak ikustera joan eta burumakur itzuli gara: ia hiriburuan bezain garesti daude. Hau marka! Hogeitaka kilometrotara dagoen herri tiki batean, esate baterako, ganbara txukun samar bat ikusi dugu, baina poxpolu kaxa bat zirudien eta ez ziguten bada hamabost milioi eskatzen! Toki guztietan zakurrak oinutsik...

25. Bestalde, Miren eta biok gero eta okerrago gaude; aspaldian ez diogu elkarri hitz politik esan. (Gasteizen, 94-III-3)

26. Mirenek garbi asko dio: «Beraz, etxebizitza bat hautatu eta erosten badugu, otorduak-eta egitera gurasoenera joaten jarraitu beharko dugu; horrela jatekoa eta argindarra aurreztuko dugu, zeren azken xentimo bera ere beharko baitugu kreditua ordaintzeko.» Beste batzuetan, oster, honela mintzo zait: «Bikote batzuek umeak ekarri ahal izateko erosten dute etxea, baina gero, ezin bada umerik izan, hain daude estututa... Ez, ez dago atsegin!» Eta orduan,

erdi negarrez hasten denean, apur bat adoretzearren nik diotsot: «Miren, ez dago beste erremediorik: burutapena aurrera eraman beharra daukagu.» Baina Miren gogogabetu egiten da nik kontu hori aipatzen diodan aldiro. (Gasteizen, 94-VI-19)

27. Gaur Mirenen amak oporretara joateko asmorik ote dugun galdegin dit. Izurrai! Zer opor eta zer oporrondo! Gazteagoak ginenean, ez dirurik ez lanik, ezin ginen urrunera joan, eta orain, zer



vitales
MIKEL
DELIKA

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

edo zertxo ahal dugunean, pisu batean sartu eta, ezinbestean, hor eman beharra aste eta jai, lan eta opor. Gainera, noizbait pisu bat lortuko bagenu, aurrezki kutxako kateak ez liguke urrunera joaten utziko, urrunen Gamarrara, zikoinak ikustera eta han Marokon bezala sentitzeko.

28. Amaren galdera dela eta ez dela, azkenean Mirenekin muturtu eta amorratzen etorri naiz etxera. Gelarakoan, egongelan zegoen aitari begiratu zakar bat bota eta ez diot gabon ere esan. Alargunarena behintzat esan izan banio... (Gasteizen, 94-VII-3)

29. Aspaldiko partez (lagunekin gero eta gutxiago ateratzen gara), gaur Josu eta Anerekin topatu gara. Pisu bila genbiltzala zekitenez, babes ofizialeko etheen zozketarako izena eman ote dugun galdegin digute, eta guk ezetz, eta ea epea noiz amaitzen den, eta haiek ba ze pena, zeren dagoeneko amaitu baita, eta beraiek izena aspaldi emana zutela, eta berriro ba ze pena, jakin izan balute oharataraziko gintuzketela... Doazela infernuko zulora! (Gasteizen, 94-IX-15)

30. Gaur Mirenen ahizpa ttikiari eta senargaiari bizikletak eskatu eta urtegira joan gara. Han, toki ezkutu bat bilatu eta, musu eta laztan artean, adiskidetu egin gara. Bazen garaia! (Gasteizen, 94-X-4)

31. Tarteka inmobiliarien bidez joaten gara pisuak ikustera, baina atzo arte ez genuen jakin zenbat kobratzen zuten: %3a. Arranopola! Partikularretara zuzenean jotzea erabaki dugu, baina asmatuko al dugu paper

guztiak behar bezala egiten? Ez al digute adarra joko? (Gasteizen, 94-XI-30)

32. Nazka-nazka eginda geundenez, amorrazioz beterik alegia, gaur aurrezkietatik diru apur bat hartu eta batere konturik egin gabe gastatu dugu. Barrena nolabait askatzeko, nahi hainbat txistor mutur jan dugu, bat, bi, hiru, lau, bost...; nahi hainbat basoerdi edan dugu, bat, bi, hiru, lau, bost... Txispatuta eta sekulako bihotzerrearekin, goizaldean Miren bere gurasoen etxeko atarian agurtzean, begietara tinko so egin, eta burutapena aurrera eramango ote dudun galdegin dit, eta eroturik ez ote gauden, eta nik baietz, gaur dela burutapena gauzatzeko eguna, eta korroskada ttiki baten ostean esan diot ezetz, ez gaudela eroturik, eta egotekotan, gizartea dela eroturik dagoena.

33. Etxerako bidean, barrena guztiz askatzeko, zenbait inmobiliaria eta banketxe harrikatu eta zakarrontzikatu ditut (tartean mustaxdunarena): dinbi-danba!, errukirik gabe ihardun dut. Gero, etxera itzuli, komunera joan, han txizerreka bat egin eta, ez bat eta ez bi, Mirenek laborategitik ekarri eta nik ondo gordea nuen zianuroa hartu eta aitaren hortz eskubilan jarri dut, nire burutapena alegia.

34. Burutapena nahitaez aurrera eramane beharra neukan, bestela, Mirenek zioen bezala, jai genuen. (Gasteizen, 94-XII-21)

35. Ene, ene, ene! Gaur goizean komunera joan eta aita luze-luze topatu dut,

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 • 20600 EIBAR

begiak beren zuloetatik irtenda eta hortz eskubila artean ahoan zuela. Gizagaixoak. Hasieran hunkitu egin nau, baina berehalakoan, hortz eskubila ezkutatu, bizilagunei laguntzeko deitu eta, haiei aitaren bihotz gaisotasuna aipaturik, bolo-bolo zabaldu da bihotzekoak jota hil dela. Gizagaixoak.

36. Azkenean, bakar-bakarrik geratu naizenean, Mireni telefonoz hots egin eta hainbeste irrikatutako albistea eman diot: «Eginda dago. Pisua gurea da.» Egia esan, sakon-sakonean aita ere pozik egongo delakoan nago.

37. Aurten Olentzero aurreratu egin da. (Gasteizen, 94-XII-22)

38. Gaur eguerdian, bortitz jo dute etxeko atea, kask-kask! Hura zabaldu eta bi gizon mustaxdun ikusi ditut, bat ezezaguna eta bestea irribarre biratsua egin ohi duen aurrezki kutxakoa. Zakar, lehenengoak agiri bat erakutsi eta aitak testamendua egin gabe zuela azaldu dit, eta beraz, pisua eskuratu nahi izanez gero, oinordeko bakar eta zuzena izan arren, haren balioaren %20a Ogasun Publikoari ordaindu behar dizkiodala, eta bestalde, jabearen izena aldatzeko hainbesteko bat ordaindu beharra daukadala, eta horri guztiari, jakina, notarioaren gastuak gehitu behar zaizkiola. Hainbat zerorekin zorabiatu antzean nengoela, orduan nazkante atorrantea hasi zait, aitak bere kutxan zuen eta niri ezezaguna zitzaidan hipoteka kantzelatu beharko nukeela, baina beraianengan konfidatuz gero, ez dudala arazorik

izango, zeren, gogorarazi didanez, «Zure ametsak betetzeko prest gaituzu.» Horren ostean zero asko-asko-asko aipatzen ari zela, ni aitaren hileta gastu beldurgarriez oroitu naiz, eta ai ene, ai Jesus, Maria eta Koxme! (Gasteizen, 94-XII-28)



...KITTO
Etxerik gabeko
bikote baten
egunkaria



*HegoAmerikako
 jantziarik ederrenak*

**PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren
 kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52**

UDABERRIA
 elkartea

•Euskaltegi Homologatua
 -Helduentzat
 -Ume eta gaztetxoentzat

•Musika eskola
 •Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
 Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



**PINTORERIA, 17
 tfnoa: 27 40 09
 GASTEIZ**

ARABA, GASTEIZ BAINO ZORAGARRIAGO



Nekane eskuinean bere Ahizparekin

Gasteizen den giputzetarikoa da Nekane Artolazabal. <Tolosan jaioa, 1.970eko abuztuaren 3an>.

Urduria da, Leo. <Teorian, sutsua, bere buruaz oso segurua, gauza guztiak kontrolatu behar dituen, oso pasionala...>. Hortxe-hortxe dabil Nekane. <Sutsua banaiz: gauzak gehiegi pentsatu gabe egiten ditu. Baina ez naiz orekatua, eta Leo-ak orekatuak omen dira. Eta zuzentzearen kontu hori, kontrolpean ez dutudan gauzak ez zaizkit gustatzen, mendiko zenbait egoeratan adibidez. Baina batzuetan erosoago iruditzen zait kontrolatua izatea>. Honenbestean, asto da talde lanean eta ez mando.

Ikasketak medio urratu zuen Gasteiza bidea. Bukatu eta hemen hauetan da oraino. <Euskal Filologia ikastera etorri nintzen. Orain zazpi bat urte daramat hemen>.

Euskara irakasle da IKAn, horixe du bizibide. <Beti IKAn. Aurten, hiru urte erakunde berean>. Lesakako barnetegian irakatsi zuen lehengo ikastaroan.

Nekane Artolazabal

Gasteizen badago euskaraz ikasterik?

Bai eta oso ondo, gainera. Froga ere badut.

Duzun biziorik handiena?

Bazkaldu ondoreneko kafea, tertulia eta pastak edo pastela. Eta landareak, loreak, izatea, erostea, haztea, oparitzea... Dirua izanez gero, kristoren dirutza gastatuko nuke horretan.

Famatu adiskideren baten izena?

Adiskide-adiskidea, agian ez. Ezagunak, baten batzuk: Javi Muguruza, Gerardo Markuleta, Patxi Zubizarreta... Eta beste zenbait; txirindulariren bat edo beste. Ez dut izenik esango, agian ez dira hain ezagunak izango eta.

Zer eskatzen du herriak?

Gehienen ahotan, bakea, justizia eta lana. Mila gauza eskatzen ditu baina egunkarietan irakurtzen duzunaren arabera eta irratian entzuten duzunaren arabera, badirudi hori eskatzen duela.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Bizitza lasai bat.

Eta eskaini?

Munduan gauden guztiok eskaintzen diogu zerbait baina ez dakit esaten zer.

Gasteiz ala Tolosa?

Bihotza erdibanatua dut horretan, Tolosa jaioterria delako eta lagunak eta familia han ditut. Baina Gasteizen ere baditut lagunak eta bizitzeko zoragarria da hiria. Eta inguruak, batez ere probintzia. Gasteiz baino gehiago, Araba.

Jeniorik bai al duzu?

Bai, mundu guztiak bezala. Nahiko pertsona lasaia naizela iruditzen zait, alde horretatik. Egoera batzuetan beti ateratzen dugu jenioa, eta pertsona konkretu batzuekin are gehiago.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gezurrak; mota guztietakoak. Eta Herri honen egoerak: gaur egun daukagun egoera politikoak. Ez dut egoera ulertzen, manipulazioa eta.

Zein duzu momentuko kezkarik handiena?

Zer egingo dudan biharko egunean, non izango naizen, norekin...

Telebista programarik?

Ez dut telebistarik ikusten, baina tarteka saiatzen naiz "Tercer Milenio" ikusten. Azkenaldian ez dakit botatzen duten edo ez.

Oporrak non eta zertarako?

Denetik egin dut: mendian izan naiz eta Torremolinos izeneko leku zaxtar batean izan naiz apartamenduan. Gorrotagarria izan zen. Aste Santutan izan ginen bizikletan ibiltzeko asmotan... hura trafikoa eta turismoa eta! Gaizki. Zertarako oporrak? Lasaitzeko, leku berriak ikusi, jende berria ezagutu eta zeure buruarekin gustora izateko, besterik gabe.

Filmeren bat?

Asko, baina gehien inpresionatu nauena, "Europa". Duela urte pare bat ikusi nuen Gasteizen, azpitoluekin zen. Alemaniako Gerra bukatuta, EEBBetako mutil bat Alemaniara joan zen lanera. Pelikula zuri-beltzean da baina odola ateratzen zenean, gorri-gorri ateratzen zen. Oso gogorra. Off-eko boza ere agertzen zen.

Zer aldatuko zenuke gizarte honetan?

Banaketa. Uste dut gauzak oso gaizki banatuta daudela gizarte honetan. Batzuek gehiegi eta beste batzuek gutxiegi.

Munduan den denbora guztia izanez gero, zer egingo zenuke?

Hori arriskutsua da. Jakingo banu munduko denbora guztia izango nukeela, agian ez nuke ezer egingo. "Bihar egingo dut, bihar egingo dut...". Gauden bezala, hobe.

Badago euskaraz bizitzetik Gasteizen?

Ni euskaraz bizi naiz. Dendara joaten naizenean ez, baina lagunekin, lanean... ordu gehiago ematen dut euskaraz erdaraz baino. Giro euskalduna dut nik Gasteizen.

Miel Anjel Elustondo



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

Txagorritxu: ospitalea baino zertxobait gehiago

Oraingoan GEU GASTEIZkoek Txagorritxu auzora jo dugu Gasteizko alde hori pixka bat gehiago ezagut dezazuen. Seguru asko, hor ez bazarete bizi, ez duzue auzo horri buruz askorik jakingo, izena besterik ez, hor baitago izen bereko ospitalea.

MIGUEL UNAMUNO elkartearen gertatuak ginen auzoaz hitz egiteko, baina hara joan aurretik bueltatxo bat ematea erabaki genuen, guk geuk ikusi ahal izateko bertatik bertara nolakoa den auzoa.

El Pilar auzotik aterata, San Viator kalean zehar ibiltzen hasi ginen, han hasten baita Txagorritxu auzoa. Kaleen izenak erakarri ziguten arreta, beste ezerk baino lehen. Izan ere, kalerik gehienek Hegoamerikako herrien izenak dituzte, hala nola, Bolibia, Ekuador, Argentina, Mejiko... kaleak aurki ditzakezu bertan. Etxeak oso ondo daude kokaturik: guztiek lauki bat osatzen dute, erdian parkeak edo umeentzako esparruak daudela. Horko



jendeak ere ez daki zehazki noraino ailegatzten den auzoa, zein eraikin dagoen auzoaren barruan eta zein kanpoan. Bidean topatu dugun jendearen arabera,



hauek dira Txagorritxu auzoaren mugak: Gasteiz ibilbidea, Txile, Mexiko, Kolonbia eta San Viator kaleak. Baten batzuek Gazalbide izeneko auzoa ere barruan sartu dute. Dena den, jendearen ustez, gaur egun ezagutzen dugun Txagorritxu auzoa bat eginik zegoen lehen Gazalbide auzoarekin. Horrela, biek Txagorritxu-bidea osatzen zuten. Horixe da, hain zuzen ere, Gazalbideko auzo elkarteak gaur egun duen izena. Orain, Txagorritxuk bere kasa dihardu, baita Gazalbidek ere. Hala ere, bertako lagun askok esan digunez, "Gazalbiden dagoen elkartera Txagorritxu auzoaren jendea biltzen da".



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

Ezaugarriak

Auzoan zehar pittin bat ibili eta gero, Miguel Unamuno elkartera joan gara, "txokolatezko etxeak" izeneko eraikinetara alegia. Hantxe izan ginen hizketan auzo elkarteko presidentearekin. Nahiz eta elkartea auzo osoarena ez izan, gauza interesgarriak kontatu zizkigun. Hasteko, azpimarratzekoa da haiek ere ez dakitela

sendo erantzun digute "trafikoa da gure arazo bakarra, batez ere ospitalearengatik. Beraz, hemengo bizilagun bakoitzak bere arazoak izango ditu, baina orokorrean, auzoan ez dugu arazorik".

Bizilagunak

"Txagorritxu" auzoa ez da oso zaharra. Hara bizitzera joan ziren lehenengoeak 22 urte daramatzate bertan. "Jendea oso ondo bizi da hemen, hala ere, heldu jende asko dago, zahartzen ari gara, eta gero eta ume gutxiago daude" esan digu arduratuta presidentek. Hori izan daiteke arrazoi bat euskararen egoera azaltzeko, oso gutxi entzuten baita kaleetatik. Gainera, gazte jendea gutxi mugitzen da auzo-bizitzan, beren ekimenak beste leku batzuetan garatzen dituztela. Bizilagunen zahartze horren ondorio bat Unamuno ikastetxean ikusi ahal izan zen: OHO-ko eskolarik ez dute ematen dagoeneko eta, horren orde, BBBari ekin diote. "Dena den, gure auzoa oso eroso da bizitzeko baita lasaia ere". Jende gehiena heldua eta langilea da, eta Txagorritxun atsedena hartu besterik ez du egiten.

Hain lasaiak dira auzoa eta horko bizilagunak, ezen jairik ere baitute antolatzen, baina berdin zaie "badaukagulako ondo-ondoan San Martin auzoa, eta haiek antolatzen dituzten jaietara joaten gara". Arrazoiketa horrek ez gaitu ustekabeen harrapatu, auzo elkarterik ere ez dutela kontuan izanda.

Horrela bukatzen dugu erreportaia txiki hau. Beraz, badakizu, lasai eta eroso bizi nahi baduzu, hona aukera: Txagorritxu auzoa. Dena den, orri hauetatik aholku bat luzatzen diegu Txagorritxukoei: hobeto bizitzeko, denon artean lan egitea duzue biderik egokiena, eta horri ekitekotan, auzo elkartea osatzea baino hastapen aproposagorik ez dago.

David Alvez

Umeak

zaintzen ditugu

GOIZEZ GAUEZ

Beatriz	22 61 18	Esther	27 84 57
Iholdi	14 45 91	Imma	24 22 41
Nekane	26 91 53	Iholdi	14 45 91
Eduardo	14 21 99	Idoia	24 47 79
Leire	27 32 81	Lorena	27 10 13
Lorena	27 10 13	Ainara	23 38 28
Ainara	23 38 28	Txaro	28 08 85
Naiara	24 04 42		
Leizuri	25 53 10		



ARRA TSALDEZ

Oihana	25 30 35
Imma	24 22 41
Rafa	25 22 68
Iratxe	24 51 81
Lorena	27 10 13
Patrizia	27 78 19
Iratxe	24 51 81
Ainara	23 38 28

ASTEBURUAN

Olatz	25 61 20
Jose Angel	27 62 41
Saida	26 58 05
Idoia	24 47 79
Belen	13 65 10




EA HOSPITAL DE TXAGORRITXU

zehazki zer den Txagorritxu auzoa. Bestalde, txoko eta eraikin ikusgarriak ere badu Txagorritxuk: auzoko eliza, ondoko parkea, Miguel de Baradianek sortutako trikuharri bat, eta, nola ez, OVNI-a ere bai, non auzoa berotzeko kalfakzio zentrala dagoen. Txagorritxu gizarie- etxea ere ez dugu ahaztu behar.

Horiek horrela, zinez esan dezakegu bizitzeko auzo aproposa dela Txagorritxu auzoa. Gainera, Unamuno elkarteko ki-deek esan dutenez, oso hurbil daude hiriaren erdialdetik.

Auzoko arazoei buruz galde eginik,

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ



IRUNA
TABERNA
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ


ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea,7
Tfnoa:(945)146261 • Fax:(945)143509
01001 GASTEIZ



Mikel Hernandez

Abaitua: "Istorio guztiak Bazko arrautzak dira"

gIPUZKOAN Araban baino urte gehiago eman dituen arren, gasteiztarra dugu Mikel Hernandez Abaitua. Gazte-gaztetatik hemendik kanpo bizi izan denez, "Arabian ez dira nitaz asko oroitzen" uste du idazleak. Halere, GEU GASTEIZEK beregana jo du "Bazko arrautzak" liburua kaleratu berri duela ahotan hartuta.



"BAZKO ARRAUTZAK" Mikel Hernandez Abaituak idatzi duen bosgarren liburua da. Zenbait lekutan edota bizigirotan gertatutako bost ipuinez osatuta dago. Istorio horiek loturik daude elkarren artean oso estilo ezberdinetan idatzirik dauden arren. Izan ere, fantasia

“Euskal irakurlegoa nahiko handia da zein hizkuntza txikia garen kontuan hartuta”

errealistatik errealismo fantastikorako bidea egiten du Mikelek liburuan zehar.

Idazle gasteiztarrek azaldu duenez, "konta-teknikari dagokionez, ipuin gehienak lehenengo pertsona narraturik daude". Bizigiroa da gehien aldatzen dena kontakizun batetik bestera. Mikelek berak nahiago ditu erregistro diferenteekin idatzitako ipuin-liburuak, "kasu honetan erregistro baino, bizigiroa da aldatzen dena, istorio bat Txekoslovakian kokatu dut, beste bat Hegoamerikan...".

Oso esaldi erakargarria idatzi du gasteiztarrek liburuaren hitzaurrean: "Istorio guztiak Bazko arrautzak dira". Geroxeago konturatu da idazle gasteiztarra nork bere erara ulertzen duela esaldi hori: "Eta ohartu naiz arrazoi dutela, baina ez dut ezer esango, nork bere modura interpretatu behar du eta".

Bazko arrautzena liburuak duen giltzarrietariko bat izan daiteke. "Giltzarri asko daude liburuan, keinu asko egin dizkiot irakurleari. Idazteko momentuan

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

deportivos

AZOKA

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34
Gorbea 27
Ariznabarra 17

tfnoa: 24 75 04
tfnoa: 24 22 05
tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

Klabe fantastikoan idazten dudanean errealitateari buruz ere idazten dut

burura etortzen zaizkidan kontuak dira horiek eta horrela dibertitu egiten naiz. Hala ere, norbaitek keinu horiek ikusten ez baditu ere, azpimarratzekoa da ipuinak erraz ulertuko dituela”.

Gizartearekiko konpromezua

Interesgarria da oso Mikel Hernandez Abaituaren bosgarren liburua. Ukaezina da, ordea, ezkortasun puntu bat ageri duela lerroen artean. “Hala iruditu al zaizu? Ni ez naiz oso gizon baikorra baina egungo errealitatea deskribatzeak pesimista emateko adina arrazoi ematen du”. Mikelek ez dauka fede handirik gizakiaren etorkizunean: “Gizakia nolakoa den ikusita, ez dago aurrera egingo duen gizarte-antolamendurik, iraultza sozialik edota ideologiarik. Gizakiak huts egiten du beti”.

Literatura hutsaren eta konprometituaren arteko aukia ez da atzo goizekoa. Mikelek konpromezuaren arloan saiakera nabarmen bat egin duen arren, ez du ez bataren ez bestearen aldeko defentsa suturik egiten: “Ni irekia naiz, zinez uste baitut bide guztiak onak izan daitezkeela. “Etorriko al haiz nerekin?” idatzi nuen Euskal Herriko egoera soziopolitikoaz

hitz egiteko beharra nuelako. Dena den, liburu baten irakurketa ugari egin daiteke, irakurlearen eta irakurtze-garaiaren arabera”.

“Idazlea ezin da marfilezko dorre batean bizi eta nik klabe fantastikoan idazten dudanean errealitateari buruz ere hitz egiten dut”, adierazi digu ziur Mikelek.

Hizkuntza txiki baten arazoak

1983an argitaratu zuen Mikel Hernandez Abaituak “Panpinen erreinuak”, bere lehenengo liburua. Geroago, lau liburu



gehiago gehiago kaleratu ditu. “Hirugarren liburua bukatzerakoan, literatura uztea erabaki nuen horretaz asea eta beteta nengoelako. Rock talde batean aritu nintzen literaturaren bidea gustokoago nuela ohartu arte”.

Donostian bizi den idazle honen emankortasuna euskal idazle gehienek parekoa da. Izan ere, guztiek arazo bera dute: idaztetik ezin bizi eta ohizko lanak idazteko denborarik utzi ez. “Batzueta izorrata ibiltzen zara, egia da. Baina niri ez zait ajola, oporretan idazten dut, eta nere bizitza osoan 50 liburu sortu beharrean 10 baino ez baditut egiten, ez da ezer gertatzen”.

Euskal literaturgintzak dituen arazoak ondo ezagutu arren, ezkortasunetik baikortasunerako jauzia egiten du gure literaturgintzaren etorkizunaz mintzatzen hasteaz batera. “Jendeak esan ohi du oso gutxi irakurtzen dela baina euskal irakurleagoa nahikoa handia da zein hizkuntza txikia garen kontuan hartuta”.

Euskara batuaren normalizazio prozesuak horretan eragina izan omen du, “euskara batua sortu zenetik, irakurtzeko ohitura hedatu da. Ez dakit, agian goia jo dugu, baina baditugu arrazoiak baikorrak izateko”.

Leire Lpz. de Aberasturi

MODA-MODAN

Zatoz berehala MULTIOPTICA Sera eta jar zaitez moda-modan MULTISOLEkin. Proba itzazu bere diseinu berritzaileak!

Harritu zaitez ispiluzko eusturez eta liluratu prezioarekin: 1.950 pezetan dituzu.

Eta guztiak kalitate optiko kristalekin, Jakina. Zer deritzozu? Jantz itzazu MULTISOL batzuk. Moda-Modan egongo zara.

ETA NAHI BADUZU,
GRADUATU
EGINGO DIZKIZUGU



Zatoz eta proba itzazu MULTISOLak

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ

1.950

PEZETAN

ZER DERITZOZU?

2. B MAILARA IGOTZEA,
60. URTEURRENA OSPATZEKO OPARI EDERRA



Aurrera aurrera inoiz baino aurrerago

i

**RAILAREKIN
BATERA,**

urtero bezala, futbol ligako partiduak hemen ditugu berriz ere. Futbol talde guztiak ilusioz beterik eta indarberriturik agertzen zaizkigu, handiak nahiz txikiak izan. Gu ez gara, ordea, egunero komunikabideetan agertzen diren talde eta jokalaria ospetsuez arituko. Horretarako nahi adina aukera badute-eta bestela ere. Isil-isilik baina zuzen-zuzen lanean ari den Gasteizko talde bat ekarri nahi izan dugu orrialdeotara: Aurrera futbol taldea.



JOANDAKO denboraldi arrakastatsuen ondoren, aurtun erroka gogor bati aurre egin nahi dio Olaranboko talde gasteiztarak. Lehen aldiz, 1935ean sortu zenetik, 2.B mailan jokatu du, besteak beste, Amurrio talde arabarrarekin batera.

Talde honek badu ezaugarri aipagarri bat: bertan jokatzen duten mutil guztiak arabarrak dira. Urte luzez gazteekin eta beheko mailako taldeekin egindako lanaren emaitza da aurreko denboraldian lortutako igoera historikoa.

Dena den, beren helburuak zein diren argi dute eta ez da aldaketa handiegirik izan-

go, Emilio Ubis presidenteordeak adierazi digunez. "Guk beti bezala jarraituko dugu lanean, baina badakit orain gauzak zailagoak izango direla. Bigarren mailan egoteak azpiegitura sendoagoa eskatzen du eta zaila izango da helburuak lortzea. Zaletuen, erakundeen laguntza handiagoa beharrezkoa zaigu, urte honetako kostuak haundiak izango baitira. Aurreko denboraldiarekin alderatuz, % 50-eko igoera izango dugu gure aurrekontuetan".

Alavesen ondoan izateak ez dizkie gauzak errazten baina, ikuspegi desberdinak dituztenez, ez dira gehiegi kezkatzen. "Badakigu Arabako lehen ekipoa Alavesa dela baina bi filosofia erabat desberdinak

euskaltegia eta
barnetegiak

zinemak 100 urte,
euskarak milaka!



Euskal Herria
jatorrizko bertsioan!

izena
eman

dek

Xabier
taberna

musika ona
eta giro
ezinhobeak **Kutxileria 23**

ditugu. Gu behe mailetan oinarritzen gara, gure lana oinarritzko futbola, harrobia lantzea da. Saiatzen gara lehenbizi pertsonak egiten eta gero, futbolariak bada toz, ba primeran. Alavesek, ordea, bere zaletuek horrela eskatzen diotelako, emaitzak beharrezko ditu, eta horretarako jokalaria eginak behar ditu. Arazoa hau da: amateur mailako kirolari ez zaiola behar adinako arreta eskaintzen eta laguntzak talde profesionalentzat izaten direla. Beren arrazoiak izango dituzte baina ni ez nago ados politika horrekin”.

Beheko mailetan oinarritzen da, oinarritzko futbola, harrobia landuz



Horrez gain, beste arazo bat ere aipatu digu Emilio Ubisek. “Azken hamar urteotan kirol instalazioetan egindako inbertsioak asko ugaritu dira eta gaur egun erosoago da neska-mutientzat saskibaloian, igeriketan edo judoan ihardutea. Izan ere, futboleko azpiegiturak oraindik zaharkiturik daude. Lokaztutako zelaietan entrenatu behar izaten dugu eta horrela gogorragoa egiten da”.

Gaztetxoenetatik hasi eta maila guztietan dute talderen bat Aurrerakoek. Guztira 700 gazte inguru dira futboleko dabilzanak, baina Aurrera kirol elkarteak beste sail batzuk ere baditu. Atletismo, saskibaloia eta hockey taldeak kontuan harturik, 1.400 neska-mutilek egiten dute kirola Gasteizen talde honi esker.

Kirol harrobi horretatik futbolari ezagunak ateratu dira. “Azkenaldian ateratu den jokalaririk ospetsuena Pello Uralde izan da. Bera nazioarteko partidua jokatzera heldu zen. Momentu honetan lehen mailan dabilta Estibariz, Kortina, Carcelen eta beste hainbat. Lehen eta bigarren mailan, Arabako 18 jokalaria daude eta gehientsuenak hemendik ibilitakoak dira”.

Ubisen ustez, aurreko denboraldian lorturiko arrakasta ez da kasualitate hutsa izan. “Duela hiru-lau urte 19 urte azpiko txapelketan final erdietara iritsi ginen eta Guardiola edota Cuellar-en mailako jokalaria ikusi ahal izan genituen Olaranben. Urte hartan oso jokalaria onak zeuden gure taldean eta arraroa zen hain maila ona erakutsi zuen talde hark emaitza hobeagorik ez lortzea. Iaz, ordea, barruan gordeta zuten kalitate hori kanpora ateratu zuten eta horregatik igo ginen”.

Hirugarren mailatik bigarren B mailara jauzi handi samarra badago ere, konfiantza osoa dauka bere jokalariegana. “Helburua maila honetan jarraitzea izango da baina ahaztu gabe zerbait gehiago egin dezakegula. Jokalariek ez dute oraindik goia jo. Beraz, talde hau berek nahi duten lekura iritsiko da”.

Aurrekontu haundiagoko taldeen aurka borrokatu beharko dute denboraldi honetan. “Aurrekontuari dagokionez, gu-

rea da talderik apalena. Baina guk kirol proiektu baten alde egin dugu apustua. Araban egindako jokalariekin osatutako talde bat gorenko mailetan egotea da gure nahia. Gure jokalariek ere onartu dute erronka hori eta, ondorioz, alderdi ekonomikoa alde batera utzi dute talde honekin kirol emaitza onak lortu asmoz. Berak izan dira sakrifizio gehien egin dutenak. Batzuek maila altuago batean jokatzeko aukera izan arren, gurekin geratzea erabaki dute. Espero dugu jokalaria hauek orain egiten ari diren ahaleginak emaitzarik izango duela atzetik datozen jokalaria gazteagoentzat ere”.

Amaitzeko, mezu bat bidali nahi du Ubisek. “Moralki eta ekonomikoki laguntza handia behar dugu. Tristeia da partidu on bat ikusteko aukera izan eta laurhun lagun bakarrik biltzea zelaia inguruan. Olaranbek beharrezkoa du 1.500 ahotsek eman dezaketen laguntza morala eta ekonomikoa. Erakunde edo finantziario-etxe baten laguntzarik ez badugu, ezin izango dugu jasan”. Arabar eta futbolzale guztioi egindako eskaera honek erantzun egokia izatea besterik ez dugu espero geuk ere.

Xabier Zabaleta

95-96an laguntza handia beharko dute, gastuek %50eko igoera izango baitute



EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak*

MIRI KIRA- LAK



UDALTZA INA
ETORTZEAN GORRI-
AK IKUSIKO DITUK
UDALTZA INA ! NON
DAGO ? UDALTZA-
INA



Floridako altxorra !

35



adaka 
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ



GASTEIZKO XX. A NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIA

Irailaren 27an eta 28an
Teatro Bellas Artes taldearen eskutik

Caligula

Albert Camusen
eleberrian oinarriturik.

Principal antzokian
arratseko 8 t'erdietan

Irailaren 30ean
OFF Sailean
Ñake taldearen eskutik

Pocos y mal avenidos

Ipar Arriaga antzokian
arratseko 8 t'erdietan

GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA	Espainia plaza, z/g	16 13 37	16 13 60
	GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK)	Espainia plaza, z/g	16 13 44	
	GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA	Espainia plaza, z/g	16 13 30	
	PERTSONAL SAILA	Espainia plaza, z/g	16 11 41	
	IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g	16 13 20	
BULEGO TEKNIKOAK	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA	Dato, 11	16 11 87	16 11 88
	ERROLDA ETA SOLDADUTZA	Dato, 11	16 11 06	
	BORONDATEZKO DIRUBILKETA	Dato, 11	16 16 68	
	ZERGEN GESTIOA	Dato, 11	16 11 33	
	INGURUGIROA	Dato, 11	16 11 20	
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)		Fray Zacarias	16 12 16	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI	Urriak 12 kalea, z/g	16 17 40	
	LANDATXO	Santa Maria kalea, 4	16 16 82	
	IPARRALDE	Zuberoa plaza, z/g	16 17 50	
	ABETXUKO		24 47 14	
	ARIZNABARRA		13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK-KULTURA		16 12 31	
	BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			13 36 91	

